

Txanogorritxu



- Aitatxi ! Ipuin bat kondatzen dautazu, otoi !
- Bai, Idoia, orai berean.
- Behin, bazuxun neska ttipi bat : Txanohorritxu.
- Ez, Aitatxi ! Txanogorritxu zuen izena !
- Bai, bai... Orduan, amak erran ziaxoxun : “Aizu, Txanoxurritxu...” 5
- Ez, Aitatxi ! TxanoGORRItxu erran dautzut !!
- “Txanogorritxu ! Xoaxi izebaren etxera ; patata axal horiek eramanez diazkoxu.”
- Ez, Aitatxi, ez da hola. Amak erran zakon : “Xoaxi Amatrixirengana opil goxo hunen eramaitera.” 10
- Bai, Idoia, bai ! Orai ontsa segituko dixit. Orduan, Txanogorritxu badoaxu eta oihanean elefante bat ikusten dixi.
- Ez, Aitatxi, otso bat ikusi du eta ez elefante bat.
- Xuxen xaude, Idoia. Orduan, otsoak galdegin ziaxoxun : “Zenbat dira hogoi eta hogoi ?” 15
- Ezetz, Aitatxi ! Otsoak galdegin zakon : “Nora zoaz, Txanogorritxu?”
- Bai, bai, Idoia, oroitzen nuxu. Orduan, Txanobeltzek...
- GORRITXUK ! GORRITXUK ! Aitaxi, kasu egizu !
- Azkenean, neska ttipiak ihardetsi zixin : “Ni, merkatura banoa, tomateak erosi behar ditut.” 20
- Boooo ! Aitatxi ! Txanogorritxuk erran zakon : “Amatrixirengana banoa, opil goxoa eramanez diot.”
- Ontsa duxu, Idoia. Orduan, zaldiak erran ziaxoxun : ...
- Zer, zaldiak ? OTSOA zen, Aitatxi ! Ez zaldia !
- Otsoa, bai, otsoak erran ziaxoxun : “Autobusa hartu behar duzu eta elizaren ondoan duzu merkatura.” 25
- Aitatxi ! Geldi zaitetz ! Ez dakizu ipuinen kondatzen. Denak nahastu dituzu !



Aitatxi isildu zen, triste.

30 Idoiak orduan erran zion :

– Ez axola, Aitatxi! Nik, Txanogorritxuren ipuina liburuan irakurriko dut.

Eta musu handi eta goxoa eman zion Aitatxiri.

La Farandole argitaletxearen *Un conte défait* ipuinetik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Aitaxi hiru aldiz tronpatu da Txanogorritxuren izenarekin. Nola deitzen du Txanogorritxu Aitaxik?
- Aitaxiren erranen arabera, zer ikusi zuen Txanogorritxuk oihanean?
- Zergatik Idoiaren aitaxi nahasten da?
- Idoia haserretua ote da?
- Zer egin zuen Idoiak kondaira zuzenaren izaiteko?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Bi taula hauei ongi begira. Bietan hitz berak badira. Berridatz itzazu eta errazu zein gairi lotuak diren.

aita	dorrea	liburua	eliza	semea
hodeia	oilarra	osaba	autoa	eskua
alaba	onddoa	bidea	aitatxi	ama
bizikleta	arreba	zakua	erbia	sua

semea	lilia	hostoa	oihana	asteazkena
aitatxi	ama	osaba	aita	erlea
alaba	artoa	harria	etxea	otsoa
lehioa	zuhaitza	ura	arreba	dirua

► Izen zenbaitetatik beste batzuk asma itzazu **-txu** emendatuz bukaeran.

Karmen →	Pattin →	Lore →
Beñat →	Txanogorri →	Mari →
Ezti →	Xabi →	Miren →
Arantxa →	Maialen →	Argi →

► Animalia hauek ipuinean aipu dira. Hemen bat falta da. Hiruak berridatz itzazu.

otsoa

zaldia

.....